

Liburua 9 kapitulutan zatitua dago, nahiz eta bi alor nagusi bereizten diren. Lehen atala teorikoagoa da eta 5 kapituluz osatua dago eta bigarren atala hiztegia da nagusiki.

Lehenengo kapituluan jorratzen ditu hizkeren bereizgarriak. Hizkuntza-aldaeren sailkapenen inguruko kontzeptu teorikez aritzen da ahozko zein idatzizko testuak hartuta, horien artean eduki teoriko ezagunak azaltzen ditu. Ondorengo kapituluetan fonetika, morfosintaxia eta sintaxiari buruzko hainbat alor aztertzen ditu euskara kolokialean onargarriak diren ala ez eztabaidatuz.

Bigarren kapituluan ahoskerari ematen dio garrantzia, euskarari ebaketa zaindua eta ebaketa arduragabea zer den argi utziz. Eta arlo horretan aholkuak eta irizpideak ematen ditu. Esaterako, kontsonante txistukarieran bereizteko ahalegina egin beharko litzatekeela dio eta gisa berean gomendagarria dela diptongoetan goranzko diptongorik ez egiten saiatzea.

Gisa berean, bokal-bilkurak, *h* letraren ahoskatzea iparraldean eta hegoaldean, *j* eta *g* letren ahoskatzearen korapiloak jorratzen ditu eta kontsonante-bilkurak eta ez ondoko adberbioen hotsak ahoskatzeko gomendioak ematen ditu. Alegia, azken kasu horretan aldaera batuan bezala ahoskatu beharko liratekeela dio, alegia [ezpadu] ez *ba du*. Gisa berean, euskara batu informalean egokitzat jotzen ditu *ze*, *ba*, *ezkero* grafiak. Horrela dio: «Zilegi iruditzen zaigu idazteko orduan ere *ze*, *ba*, *ta ekarriozu* eta *zeozer* jartzea, testuan hizkera informala erabiltzen denean».

Hirugarren kapitulua morfosintaxiaren atala da. Lehenik deklinabidea aztertzen da, eta gainbegiratua ematen zaio gaur egungo erabilerak aztertuz. Dudarik gabe, hemen gaur egungo arazoak eta erabilera berriak jorratzen dira. Adibidez, partitiboaren omisioa edo kasu instrumentalean kasu-marka ezabatzea sintagma bakarreko erantzunetan egungo txartelak eta whatsappak erabiltzearen ondorioz sortuak, adib. —*Non izango da hurrengo kontzertua?* —*Zirauki*.

Moduzko esapideetan ere euskara kolokialean kasu instrumentala, inesiboa edo soziatiiboa erabili behar ote diren galdetzen du, adibidez, *nire iritiz / nire iritzian / niretzat* hirukotea. Arratibelek dioenez: «Ez dirudi instrumentala denik aukerarik onena». Aditzaren morfologian, aditz-moduen murrizketaz aritzen da eta, gainera, lagunarteko euskarari aditz laguntzailearen elipsia egiteko joera, bai-ez erako galderetan, esaterako: *tarta zati bat nahi?* (nahi duzu). Euskara batu kolokialetan, baliagarri direla deskribaturiko erabilera horiek dio.

Aditzaren sailean, dioenez, gaur egun alde handiak aurki daitezke hizkera formaletik kolokialera. Aldaera batzuk adizki alokutiboak dira; tratamenduei buruz kapitulu baten zati batean aritzen da. Ondoren, perpaus bakunaren sintaxiari dagokionez, aditz laguntzaileetako bat isiltzen da, ekintzen kateatzeari bizitasuna eta dinamikotasuna emateko; normalean lehena: «laz kotxea erosi, baina ez dut oraindino garajetik mugitu», horixe da euskara kolokialaren ezaugarri bat.

Bestaldetik, gaur egun aditzetan baldintzekin dauden aukera desberdinak plazaratzen ditu: «dirua eduki balu, etorriko zatekeen» hori aldaera zaindua da,

ostera, «etorriko zen» esaten badu, euskara ez-zainduaren bereizgarritzat hartzen da. Azkenik, «dirua edukiko balu, etorriko zen» baztertu beharko litzateke, hor, baldintzaren alegiazko ondorioa erabili beharko litzateke.

Sintaxiaren atalean aztertzen dira gaur egun gazteek egindako zenbait berrikuntza sintaktiko: *en plan*, esaterako. Berrikuntza hori egungo kaleko ingelesean *like* menderagailuak bereganatu dituen erabilera berrietarako ordaina da eta barra-barra erabiltzen da gazteen ahozko jardunean. Adib. *Lagunekin afaldu ostean litroak egitera joan ginen, baina enplan trunkil.*

Horrez gain, *ze ba* eta antzekoak, arrazoiak eta kausaz galdetzeko egungo euskara kolokialean erabiltzen direla konfirmatzen du:

—Berandu zatoz, Zeba ez didazu deitu?

—Zeba bateria agortu zait.

Kasu horietan, ezin esan daiteke *zeba* eta *ba ze* erabateko asmakuntza berriak direnik, eta nahiz eta ezin esan daitekeen zertan geldituko diren hemendik urte batzuetara, gaur-gaurkoz erabiltzea gomendatzen du, telebistako gidoietako hizketa kolokialak sinesgarriago egin ditzaketelako.

Horrez gain, gaur egun ohikoa da *-la* osagarriaren erabilera azalpenezko eta harridurazko esaldietan. Adib, **Ez ukitu, grabatzen ari naizela edo o! *amaitu dela!* edo **goazen arin, ordua dela!* Erabilera horiek gaitzesgarriak iruditzen zaizkio eta horien orde. *Ez ukitu, grabatzen ari naiz eta!* Edo *amaitu da eta!* hobesten ditu.

Liburu honen bigarren zatia hiztegia da, euskarazko hitz eta esapide kolokialen bilduma da. Euskal Irrati Telebistaren HIKEA datu-baseko fitxak ditu oinarri. Bilduma horretan 2.500 fitxa baino gehiago daude, sailetan antolatuta, besteak beste, sexua, anatomia, alkohola eta drogak... Hortik abiatzen da, baina, liburu honetan argitaratua dagoena beste modu batean aurkeztuta dago.

HIKEAren aldean, liburu honetako hiztegiak bi berezitasun ditu. Lehenik eta behin, elebakarra da, euskara-euskara formatukoa, eta bigarrenik, ideologikoa da, kontzeptuka antolatua dago. Lan honek 450 sarrera inguru ditu. Lehenik sarrera edo artikuluburua dago. Behin sarrera nagusiak zehaztuta, azpisarrerak daude. Batzuetan sarreraren eremu semantikoetan identifika daitezkeen ideiak dira azpisarrerak. Beste batzuetan, azpisarrerak sarreraren adiera ezberdinak dira. Adibidez, 'hil' artikulua barruan, lehen sarrera 'zendu' da, eta bigarrena 'erail'.

Beste batzuetan sarrera moduan hiperonimo bat hautatzen da, alegia, eremu zabal samarra hartzen duten hitzak. 'Jende' artikuluan, adibidez, 'jatorria', 'lanbidea', 'familia', 'hiri-tribua' eta 'kirol-selekzioa' dira sarrerak. Beste alde batetik, kontsultagilea interesatzen zaion sarrerara edo azpisarrerara heldutakoan, hainbat baliabide kolokial aurki daitezke. Sinonimo kolokial batzuk eta baita ere erretrauak, bokatioak, interjekzioak eta abar. Baliabide askoren ondoan, parentesi artean, adierari buruzko agibideak aurki daitezke.

Euskara kolokialaren eskuliburuaren bigarren zatia HIKEAko fitxekin osatua dago. Hiztegi bat da, beraz, baina hiztegi berezia, zeren kontsultatzen dugun hitzaren ordain kolokialak eskaintzen baititu. ‘Azkar’ begirutzen badugu, adibidez, *herio batean*, *ziztu bizian*, *hanka soinu batean*, *popadan* eta besteren batzuk aurkituko ditugu; eta *atuna baino azkarrago*, *txioa baino arinago* eta beste konparazioen batzuk, lagunarteko hizketan erabilgarriak. Hiztegiaren atal hau adibide ugari hornituta dago.

Azkenik, «baliabide kolokialaren konnotazioa markatzeko oharrak» agertzen dira, dena delako baliabidea zer testuingurutan erabil daitekeen adierazteko argibideak dira. Laburtzapen hauek erabili dira: *Arrn.* (arrunkeria), *aurzk.* (aurrizki modura erabilia), *ema.* (emakumezkoa).

Hiztegiaren ondoren «Gako-hitzen aurkibidea» dator. Erabiltzaileari burura etor lekiokkeen hitza kontsultatzeko zer sarreratar jo behar duen jakinarazteko. Dena den, hiztegi honetan ez dira ageri hiztegi arrunt batean jasota egon litezkeen hitz guztiak, ezta hurrik eman ere. Hitz asko hiperonimo batean bildu dira, horrela, ‘ezpain’, ‘matrail, eta ‘sudur’ kontsultatzeko, ‘gorputz-atal’ artikuluan begiratu behar da.

Azken-aurreko kapitulua da «Hitz eta lokuzio kolokialen aurkibidea», atal honek hiztegiaren alderantziko bertsioa eskaintzen du. Atal honetan, esapide kolokialen bat ezagutzen ez duenari aurkibide honetan adierazten zaio zer sarreratar jo behar duen hiztegian > ikurraren bidez. Horrela, hizketa batean ‘zapo’ hitza ulertzen ez duenak aurkibide honetan kontsulta dezake eta honela ageri dela ikusiko du: «zapo > gizonezko 1, itsusi». Horrek esan nahi du ‘gizonezko’ sarreraren lehen azpisarrerara jo behar duela eta baita ‘itsusi’ sarrerara ere.

Bibliografiari ere eskaintzen zaio kapitulutxo bat, bertan egun indarrean dauden bildumen eta foroen erreferentzia ematen da. Baina ikuspegi dibulgatzailea izateak baztertu ditu erreferentzia bibliografikoak jartzea testuan bertan, nolahi ere, horrek ikuspegi serioagoa emango ziokeen, nondik hartuak diren esaerak jakiteko unean. Izan ere, hitz eta esapide gehienak euskalkietan sortu direlakoan gaude.

Laburbilduz, hauxe esan nahi dugu liburu honi buruz: Larrinagaren liburua biziki interesgarria da egungo euskara, ahozko aldaera eta jarduna hobetzeko, hizkuntza erabiltzeko egin dagoenez, aldaera batzuk gaitzesgarriak dira eta beste batzuk onargarriak euskara kolokialean. Liburu honetan argi uzten da hizketa akademikotik aldentzeko aukera badela, eta «euskara batu kolokiala» ezinezko gauza bat dela dioen mitoa desegin daitekeela. Liburua biziki gomendagarria da euskararen erabileraz interesatzen den guztiondako, bai komunikazio-arloa jorratzen dutenentzat, baita soziolinguistika eta hizkuntzalarientzat ere. Sortzaileei ere baliagarri izango zaie; esate baterako, idazleei, komikigileei eta antzerkigileei. Sorkuntzaren arlotik kanpo, irakaskuntzan ari direnentzat ere erabilgarria izan daiteke. Azkenik esango dugu argitalpena ere oso zaindua eta atsegina dela eta hitzen aurkibideak ere badituela.

Orreaga Ibarra